


Esperimentazioa Kimikan	5. Praktika Kristaltzea.	E.U.P./U.E.P. Donostia
<p style="text-align: center;"><b><u>Materiala</u></b></p> <p>250 cc-ko prezipitatu-ontzia Inbutu konikoa Iragaz-papera Eustoina eta uztai itxia 100 cc-ko prezipitatu ontzia Kristalizadorea</p> <p style="text-align: center;"><b><u>Erreaktiboak</u></b></p> <p>Kupre sulfato komertziala</p> <p><b>Kristaltzea</b> laborategiko praktikarik garrantzitsuenetariko bat da. Helburua, kristal moduan, sustantzien banaketa izanik. Horrela, sintesi batean lorturiko sustantzia solidoa isolatu eta purifikatu daiteke.</p> <p>Kristaltze praktika honetan disoluzio asetu bat prestatuko dugu. Denbora eta materiala aurrezteko solubilitate-datuak kontutan eduki beharko dira. Azkenik, kristalak disoluzioa hoztuz lortuko dira.</p> <p><b>Alde esperimentalak</b></p> <p>Balantza batetan 20 g kupre sulfato komertziala pisatzen dira. 50-60°C-tan dagoen eta 50 cc ur dituen prezipitatu-ontzi batetan disolbatzen dira. Temperatura horretan, gatza guztiz disolbatu arte irabiatzen da. Ondoren, ezpurutasun solugaitzetatik banatzeko, disoluzioa iragazten da.</p> <p>Iragazkina 100 cc-ko prezipitatu-ontzi batetan jasotzen da eta disoluzioaren bolumena erdira gutxitu arte irakinez berotuko dugu. Bero iturritik erretiratu, eta prezipitatu-ontzia ura hotza duen kristalizadore batean giro tenperaturaraino hozten jartzean, kristalak nola eratzen diren ikusiko dugu.</p> <div style="text-align: center;">  <p data-bbox="746 1693 986 1742">Kristalizadorea</p> </div> <p>Kristalak banatzeko iragatzi egingo dugu eta iragaz-paper baten gainean lehortzen utziko ditugu. Ondoren lehorgailu batetan sartzen dira.</p> <p>Lehorgailuak, zoruan azido sulfuriko edo kaltzio hidroxido bezalako sustantzia lehortzaileak edukitzen dituzten ontzi itxiak dira. Lehorgailuaren tapa kontuz ireki behar da, eta ondo histeko lubrikatua egoten da.</p>		

<b>Esperimentazioa Kimikan</b>	<b>5. Praktika Kristaltzea.</b>	<b>E.U.P./U.E.P. Donostia</b>
<p><b>GALDERAK</b></p> <p>1.- Zertarako erabiltzen da kristalizadore bat?</p> <p>2.- Zertan oinarritzen da eta nola egiten da kristaltzea?</p>		